

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Alejandra Eguen Zabala

Elorrio, Bizkaia
(1928)

Aurkibidea



Biografia



Lekeriketa auzoko Telletxe baserrian jaioa. Aita etxekoa eta ama Mallabikoa. Lehengusuak ziren. Lau ahizpa izan dira, bera nagusiena. Ama alarguna zuen, eta bera "maiorazkia" zenez, gazte ezkondu behar izan zuen, 18 urterekin. Bost seme-alaba izan ditu eta beharra gogor egitea egokitu zaio bere bizitzan, etxeko zein kanpoko lanetan. "Gizonen lanak" egitea ere sarri tokatu izan zaio: satsak atera, ira-gurdiak kargatu eta gidatu eta horrelakoak. 2000. urtean jaitsi zen kalera bizi izatera. Dantzazale amorratua, oso erronomia zalea izan da. Dantza lotuko baltsa, runba, tangoa, zein askatuko fandango edo arin-arinak oso maiteak izan ditu. Kartetan ere astero jokatu izan du bere lagunekin, kulapean edo briskan batez ere. Gazetako lehiaketan txapeldun geratutakoa da briskan.

Zintak

ELO-028

- **Proiektua:** Elorrioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Data:** 2010-06-09
- **Iraupena:** 68 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin
- **Transkribatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin

ELO-029

- **Proiektua:** Elorrioko ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Elexpuru, Juan Martin
- **Data:** 2010-06-09
- **Iraupena:** 30 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Elexpuru, Juan Martin

Pasarteak

1. Fabrikan sartu ez izanaren pena

- **Erref:** ELO-028/002
- **Iraupena:** 0:01:21. **Hasi:** 00:01:02. **Bukatu:** 00:02:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Emakumeak lan-munduan (etxetik kanpo)
- Ekonomia eta industria » Langileen arteko harremana eta langile-mugimenduak

Laburpena:

Lau ahizpetarik nagusia. Amak lau alaba izan zituen bost urtean eta gazterik alargundu zen. Baserriko lanetan eman du bizitza. Garai hartan lantegian sartzeko bidea zegoen eta dino beharbada hobe izango zuela hala egin izan balu.

2. 18 urterekin ezkondu gogoz kontra

- **Erref:** ELO-028/003
- **Iraupena:** 0:01:17. **Hasi:** 00:02:23. **Bukatu:** 00:03:40
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak
- Aisia » Jai-giroa » Erromeriak

Laburpena:

<p>Etxeko maiorazkoa zenez, erdi behartuta ezkondu zen oso gazterik. Berari dantza gustatzen zitzaion. Ezkondu eta gero ere izan du dantzarako aukera inguruko erromerietan.</p>

3. Sukaldea eta argia

- **Erref:** ELO-028/004
- **Iraupena:** 0:02:15. **Hasi:** 00:03:40. **Bukatu:** 00:05:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Ogia egiteko labea eta beheko sua ezagutu ditu sukaldean. Argia betidanik izan dute, lau bonbilla. Eurek kobratzen zuten argia auzoan.</p>

4. Morokila

- **Erref:** ELO-028/005
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:05:55. **Bukatu:** 00:07:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Bakoitzak bere plateretik jaten zuen, baina morokila, osterá, galdaratik. Azukre barik.

5. Etxeko ardura bere gain

- **Erref:** ELO-028/007
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:09:00. **Bukatu:** 00:12:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua
- Baserría » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Amak modu atseginez ematen zituen aginduak. Tajadatxo bat jatea gustatzen zitzaion eta Alejandra arineketan joaten zen erostera. Alejandrak hartu zuen etxeko ardura.

6. Erregetan gauza gutxi

- **Erref:** ELO-028/008
- **Iraupena:** 0:01:05. **Hasi:** 00:12:00. **Bukatu:** 00:13:05
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Gabonak

Laburpena:

<p>Gabonetan, txokolate tabletaren bat edo "gauza hustxoren bat" ekartzen zieten bakarrik Erregeek.</p>

7. Gaztetatik dantzan

- **Erref:** ELO-028/009
- **Iraupena:** 0:03:25. **Hasi:** 00:13:05. **Bukatu:** 00:16:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Aisia » Kultura » Musika

Laburpena:

<p>Hamabi urte ingururekin hasi zen dantzan, herriko plazan. Gizonek ordaindu egin behar izaten zuten eta kalabaza emanez gero haserretu egiten ei ziren. Elorrioko plazan "granbolia" (gramola) egoten zen, eta jaietarako Arrasateko edo Durangoko bandak etortzen ziren.</p>

Transkripzioa

-Akordatzen zara lelengo aldiz erromeixa batera noiz joan ziñan?
-Plazara, granbolie euen da, hortxe ikesi giñuen dantzari. Dantzari bere berezkue neuken nik. Dantzari ikusi hamabi urtegaz edo. Eta gero bestetik auzoko neska ta mutil danok batera bejatzari giñen kalera.
-Asko ziñaten?
-Bai, kuadrillia giñien, kuadrillia giñien, hamabost bat ero iguel. Da bai kalera bejatu alkarraz neska ta mutill da bai ixon be bai.
-Zenbat urtekin esan dozu?
-Hamabi bat urte arte ero.
-Plazari orduan eitten ziñuen dantzari. Sueltua edo agarraua be bai?
-Bai, danera, danera. Baiña sueltue be asko. Da agarraue gero gizonai kobrau eitte(n) otsen plazari, txapatxo bat ipintte(n) otsen, ta kalabazak emoten botsazuz ba ha galdu itte(n e)ben, ha pagau eben-da.
-Ze pagatzen zebe, pieza bakoitzeko ala?
-Ez, baten, baten. Baiña ha pagau dabe ba dantzari eitteko. Ta gero ba neskak pe okerrak eta saso baten kalabazak pe emon itten giñutzezen. Da, bueno, nik behin bakarrik emon notsazen, behin, da bertan garbatu xatan da kitto.
-Hasarretu eitten zien mutilak?
-Hasarretu itten zien. Pagau eben txapie ta, bai. Bueno, ba holan.
-Erromeixa-lekuak kaliaz aparte, nora joaten ziñaten erromeixara?
-Juen kanpora ni enintzen jueten, e.
-Hemen inguruan baiña, auzuetan?
-Auzuetan. Auzuetan eta gero granbolie euen plazari, da herrixen.
-Zeintzuk zien hemen erromeixa onenak auzuetan?
-Eztakitt onenak ero zer. Soñojollak zien. Plazari ez, plazari granbolie, baiña ostien soñojollak zien. Da jaixetan, Elorrixoko jaixetan Durangoko musikie da Mundragokue etorte(n) zien, etorten ez, ekarri itten zittuen, da harek jotari zittuen piezak markatzen giñuzen, bueno!, bueno!

8. Erromeria: arbola, barkilleroa...

- **Erref:** ELO-028/012
- **Iraupena:** 0:03:23. **Hasi:** 00:20:40. **Bukatu:** 00:24:03
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Batetik bestera zebiltzanak
- Aisia » Jai-giroa » Auzoko ospakizunak

Laburpena:

<p>Txopoa ("donialatxa" esaten diote askok Elorriari) erromeria-leku guztietan egoten zen. Puntari gauzak ipinita izaten zituen eta mutilak igo eta hartu egiten zituzten. Fidel barkilleroaren kontuak.</p>

9. Dantzari onak begiko

- **Erref:** ELO-028/013
- **Iraupena:** 0:03:06. **Hasi:** 00:24:03. **Bukatu:** 00:27:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

<p>Guapoa izateak ere bazuen inportantzia neskentzat, etxauna edo errenteroa izateak ere bai, baina berarentzat batez ere dantzari ona izateak. Runba, baltsa, pasodoblea... zituen gogoko, ez hainbeste tangoa.</p>

10. Pieza bakarra kalabazaren orde

- **Erref:** ELO-028/014
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:27:09. **Bukatu:** 00:29:18
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

<p>Arantzazura joan ziren behin kamioian soinu-jolearekin. Kalabaza eman beharrean pieza bakar bat egiten zuten gustuko ez zituzten mutilekin, "trankil itxi eta onian" geratzeko.</p>

11. Izekoren euskal eztegu ikusgarria

- **Erref:** ELO-028/015
- **Iraupena:** 0:06:05. **Hasi:** 00:29:18. **Bukatu:** 00:35:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ezkontzak

Laburpena:

<p>Izeko antzinako erara ezkondu zen. Bi arreo-gurdi eta asto bi, soinu-jolea... herri guztia pasatu zuten. Zoragarria izan ei zen. Gurdian zihoazen gauza batzuk: gorua, maletak, altzariak... Idiak txilintxoekin.</p>

Transkripzioa

-Eta hori izekuoi ezkondu zanian, hori izekuoi edo, eruen zittuen arriue, amaz, geugaz bizi zan, ezkondu zanian burdi bi arriuez eta asto bi. Eta beste guztiok oiñez, soiñojolliaz, hori Gelatxoaz. Orduan Gelatxoaz. Ta soiñojolliaz. Ta Elorriko guztie pasau. Eztakitt noz aillegauko giñen bezkeitteko. Elorriko guztie pasau zan, ta harrezkero eztakitt halako ezteguik zertu zan. Baiña zoragarrix! Zoragarrix! Soiñue jo, saltoka, danok sasokuek...

-Arreo bi burdi esan dozu.

-Burdi bi ta asto bi. Asto bi asto-otzaretan ba jeneruaz. Ha zan, harek bai merezi ebala etaratie. Gaurko egunien...

-Ze edade zeunkan zuk orduan?

-Bai nik orduen neukezan hamahiru urte inguru. Tia ezkondu zanian hamahiru urte inguru neukezan nik. Ze lagun neure gizonaz ba hango anaiek zien. Aitzak anaiekin aitzak. Gaurko egunien neuk be ahaztuta daukot neure familixiaz be. Ta, baiña zoragarrix...

-Ze baserrittik ze baserrira izan zan ibilaldixa?

-Ba ibillaldixe zan neure etxetik, Telletxetik Gazetara.
 -Joanaldi edarra.
 -Juenaldixe kristona.
 -Eta akorduan daukazu burdixak eta irixak eta zela zoiazen apainduta?
 -Bai, bai.
 -Kontauko ziñuke puxkat?
 -Ba burdixek... Burdixen eztakitt oin zer eruen giñuen. Baiña mueble ta gorue be bai, gorue be bai, gorue be bai burdi baten, aurreko burdixen.
 -Bistan?
 -Bai, aurreko burdixen gorue be bai bista-bistan. Eta, zer esangotsut nik; eruen zer in zan? Etxata akordatzen, baiña maletak pe bai, erropetan batu beste erropa batzuk eta, ba maletak pe bai. Muebliek pe bai baten batzuk.
 -Eta irixak apainduta zoiazen, hola zamarrak edo zeozer?
 -Bai, txilintxuekin. Ta ardi-narrue zuri-zuri-zurixe, horrek irixok eruen eben. Gero besteko bezinuek, bestekaldeko osabie zan neure partetik, harek eruen eban behixek, behi gorrixek. Behi gorrixek eukezan eta behi gorrixek. Narru zuri-zurixaz. Eta harek eztakitt eruen zittuen txiliñak, eztakitt eruen zittuen harek, enaz akordatzen.
 -Gero entzunda dauka entzzuteko-edo ardatzari zeozer emoten jakola irrintza edo, zaratia etaratzeko...
 -Soiñujollie giñuken, soiñujollie giñuken guk Gelatxo, ta eztakitt beste zarataik. Baiña ganauek dingi-danga, dingi-danga euren martxan, ta asto bi ba, astuek pe sokatik, muturretik astuek pe. Ta zan zoragarrixe!
 -Eta hari jarraitzen zuen familixia.
 -Atzien, eztegura giñoiezen danok, danok.
 -Eztegu egunian bertan hori, edo bezperan?
 -Ez, ez, egunien, eztegu egunien. Ta ezkondu eztaitt nun ein zien... Elorrixon ezkonduko zien.
 -Eta hori zan ezkondata gero?
 -Ez, orduentxe egunien; orduentxe egunien. Eta gero bezkaixe be koziñerakin-eta baserrixen. Asike baserrixen oingo zerien barik ba orduen be ahal dana eindda baiña. Hainbeste jente ta baserrixen beheko sue euen bakarrik. Beheko sue.
 -Oillaskon batzuk edo...
 -Oillasko edo gixau edo. Zer jan giñun eztakitt.

12. Abadeen aldetik oztopo handirik ez dantza kontuan

- **Erref:** ELO-028/017
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:36:03. **Bukatu:** 00:37:37
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak

Laburpena:

<p>Berak ez du ezagutu kontrol gehiegirik abadeen aldetik dantza kontuan. Hori bai, don Castorrek arrosario denboran txaloak jo eta dantzariak elizara erakartzen zituen. Larruzko abarkekin egiten zuten dantza.</p>

13. Ama inude Gasteizera etxean lau ume utzita

- **Erref:** ELO-028/018

- **Iraupena:** 0:02:56. **Hasi:** 00:37:37. **Bukatu:** 00:40:33
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Laugarren ahizpa jaio zenean, ama "aiña", inude, joan zen Gasteizera. Jaio berria lehengusina batek hazi zuen. Bi ume hazi zituen amak Gasteizen. Harremanari eusten diote oraindik.</p>

14. Aitak basoa leihotik kanpora bota

- **Erref:** ELO-028/020
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:41:43. **Bukatu:** 00:42:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak

Laburpena:

Aitari ernegatu eragin zioten batean, honek basoa hartu eta leihotik bota zuen burdin hesi bitartetik. Osorik ekarri zuen bueltan Alejandrak.

15. Nobio-kontuak

- **Erref:** ELO-028/021
- **Iraupena:** 0:02:32. **Hasi:** 00:42:43. **Bukatu:** 00:45:15
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

Arantzazuko bidaian ezagutu zuen senargaia. Bi urtez ibili zen berarekin eta 18 urtegaz ezkondu. Kafea behin bakarrik hartu zuten. Musuren bat, beste "amistaderik" ez.

16. Nobioen familia-aurkezpena eta dotea

- **Erref:** ELO-028/022
- **Iraupena:** 0:02:49. **Hasi:** 00:45:15. **Bukatu:** 00:48:04
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Familia biek "alkar juntau" ziren nobioak. Gizonak hiru mila pezeta ekarri zuen dotea. Ezkon-bidaia egin zuten harekin.</p>

17. Umeak ez izateko neurririk ez

- **Erref:** ELO-028/023
- **Iraupena:** 0:01:22. **Hasi:** 00:48:04. **Bukatu:** 00:49:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Ez zen antikonzeptzio neurririk hartzen. Hamar seme-alabako familia asko zegoen auzoan.

18. Auzoan elkarri lagundu

- **Erref:** ELO-028/025
- **Iraupena:** 0:02:04. **Hasi:** 00:50:21. **Bukatu:** 00:52:25
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Auzoan elkarri laguntzen zioten ira ebaten eta abar. Baserriko lan asko egitea tokatu zitzaion.

19. Ira-gurdia irauli kalean

- **Erref:** ELO-028/026
- **Iraupena:** 0:04:45. **Hasi:** 00:52:25. **Bukatu:** 00:57:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua

Laburpena:

Kanpazar aldean zuten baso bat. Iratan gertatutako pasadizoak kontatzen ditu. Behin, gurdikadaz etxera zetorrela, irauli egin zitzaion guardia zibilen kuartelaren aurrean.

20. Segaz, basoan zein zelaian

- **Erref:** ELO-028/028
- **Iraupena:** 0:01:00. **Hasi:** 00:57:47. **Bukatu:** 00:58:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Mendiaren aprobetxamendua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Ira ebaten egiten zuen, belarra ebakitzen ere bai. Askotan, berak ekiten zion sailari eta gizonak jarraitu.

21. Bakarrik uztarria lotzen eta satsak ateratzen

- **Erref:** ELO-028/029
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:58:47. **Bukatu:** 01:01:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Behin baino gehiagotan idiak berak bakarrik lotzen zituen, umeak inguruan zituela. Bost gurdikada sats atera zituen behin, umeak erromaran lagata.

22. Bataioa

- **Erref:** ELO-028/031
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 01:02:14. **Bukatu:** 01:04:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

<p>Umea jaio eta hiru egunera-edo egiten zen bataioa. Jaki ugari egoten zen baserrian. Gurasoek erabakitzen zuten aita-ama pontekoak nor izan eta izena.</p>

23. Bikien haurgintza gorabeheratsua

- **Erref:** ELO-028/032
- **Iraupena:** 0:03:42. **Hasi:** 01:04:52. **Bukatu:** 01:08:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

Aurretik ez zekien bikiak zetozkionik. Lehenengoa jaio zenean emaginak esan zion beste bat ere bazuela, baina joan beharra zuela bere arrandegia atenditzera. Arraina ekarri eta erre egin zuten eta arrain-usain itzela zegoen etxean bigarrena jaio zenean. Bizimodu gogorregia izan ei du.

24. Bataioaren ingurukoak

- **Erref:** ELO-029/001
- **Iraupena:** 0:03:11. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Jai-giroa » Etxe barruko ospakizunak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak

Laburpena:

<p>Behin etxean egin zuten bataio-bazkaria lehengusinak prestatuta. Arrosaz edo zuriz janzten ziren neskak, zuriz edo urdinez mutilak. Auzoko andreek bisitatzen zuten ama berria, baina bisita horrek ez zuen izen berezirik.</p>

25. "Mokotza", aita-ama pontekoen oparia

- **Erref:** ELO-029/002
- **Iraupena:** 0:02:00. **Hasi:** 00:03:11. **Bukatu:** 00:05:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Erlijioa » Ohiturak eta bizimodua » Eliza giroko ospakizunak » Beste batzuk

Laburpena:

<p>Aita-ama pontekoek Pazko Egunean "mokotza" oparitu ohi zieten besoetakoei. Ogiari txorizo zati bat sartu, hiru arrautza ipini, labean erre..., hori da mokotza.</p>

26. Euskaraz egiteagatik zigortuta

- **Erref:** ELO-029/004
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:05:54. **Bukatu:** 00:07:52
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Señorita Rosariok ez zieten euskaraz egiten uzten, eta berak ez zekien berba bat ere erdaraz. Zigortu egiten zituen. Leitzeko maisu-maistrak ere oso gogorak ziren, eta Elorriokoak ere bai. Erregelaz hatz puntetan jo eta horrelakoak.

27. Arrasatera astoaz tratuarekin

- **Erref:** ELO-029/007
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:09:59. **Bukatu:** 00:13:00
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserría » Baserriko lanak » Herrira saltzera, erostera

Laburpena:

Arrautza-dozena baten diruaz kilo bat tajada erosten zuten. Arrasatera ere joaten zen tratuaz astoarekin. Bueltan Kanpazarren tripaki kazuelatxo bat jaten zuten salmenta ona izandakoan.

28. Erdaraz egin behar eta ezin

- **Erref:** ELO-029/008
- **Iraupena:** 0:01:36. **Hasi:** 00:13:00. **Bukatu:** 00:14:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

"Maketo" berba berak ez, baina senarrak erabiltzen zuen. Askotan gertatu zaio erdaraz egin beharra eta jakin ez. Keinuekin ulertu behar. Orain ere ez omen daki gehiegi.

29. Jokoan eguenero

- **Erref:** ELO-029/009
- **Iraupena:** 0:03:47. **Hasi:** 00:14:36. **Bukatu:** 00:18:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

<p>Gaztetatik eguenero jaitsi izan da kalera lagunekin jokoan egitera, Zirkulura. Kulepean batez ere, baina briskan ere bai. Batzuetan galdu eta besteetan irabazi. Galtzen jakin behar ei da. Diru apur bat beti jokatzeko dute.</p>

30. Briskan

- **Erref:** ELO-029/010
- **Iraupena:** 0:01:27. **Hasi:** 00:18:23. **Bukatu:** 00:19:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Aisia » Taberna giroa » Jokoak

Laburpena:

<p>Briskan oso inportantea da igartzea zer karta pasatu den eta besteak zer eduki lezakeen. Gazetako txapelketa irabazita dago. Keinuak pasatzea eta harrapatzea ere inportantea da.</p>

31. Loa galduta

- **Erref:** ELO-029/011
- **Iraupena:** 0:02:45. **Hasi:** 00:19:50. **Bukatu:** 00:22:35
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Musean ez du ikasi. Kulepean jokatzeko zuten astero. Egun hura libre hartzeko, goizez edo gauez egin izan zituen inoiz etxeko lanak. Loa galduta ere ibili zen sasoi batean.

32. Elorrioko euskara galtzera ei doa

- **Erref:** ELO-029/013
- **Iraupena:** 0:01:31. **Hasi:** 00:23:38. **Bukatu:** 00:25:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>Gipuzkoa aldeko euskara oso ezberdina. Euskara batuaren eraginez bertako euskara galdu egin daiteke. Hizkuntzarekin ulermen arazoak ditu gero eta gehiago.</p>

Eguen Zabala, Alejandra | ahotsak.eus Orr.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2025-11-19

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com